BALDINTZA AGIRIA: ERREBALGO AZOKAN PRODUKTU FRESKO ETA SASOIKOEN SALMENTARAKO BANKU KORRITUKO 5 POSTUREN ERABILERA ETA GOZAMENA HERRI-JABARIKO ARAUDIAN ADJUDIKATZEA

1. XEDEA

Eibarko Udalak lizitazio publikoaren deialdia egiten du Errebalgo Azokan produktu fresko eta sasoikoen salmentarako banku korrituko 5 posturen erabilera eta gozamena herri-jabariko araudian adjudikatzeko.

Postuen ezaugarriak ERREBALGO UDAL MERKATUKO BARNE ARAUDIAren 6.5 artikuluan ezarritakoak dira.

2. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

2017ko SPKL Legearen 63. artikuluarekin bat etorriz, eta Eibarko Udalaren kontratu-jarduerari buruzko gardentasuna eta informaziorako sarbide publikoa ziurtatzeko xedez, eskuragarri jartzen da Udaleko Kontratatzailearen Profilaren bidez kontratu-jardueraren gaineko informazio osoa.

Eibarko Udalaren kontratatzailearen profilaren sarbidea web honetatik egingo da: www.eibar.eus

3. ORDAINDU BEHARREKO TASA

Postuetako adjudikaziodunek, indarreko ordenantzaren arabera, bidezkoa den hiruhileko tasa ordaindu beharko dute.

2022ko urterako, tasa 45 eurokoa da hiruhileko eta postu bakoitzeko.

PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA ADJUDICACIÓN EN RÉGIMEN DE AUTORIZACIÓN DEMANIAL, DEL USO Y DISFRUTE DE 5 PLAZAS DE BANCO CORRIDO PARA LA VENTA DE PRODUCTOS FRESCOS Y DE TEMPORADA EN EL MERCADO DE ERREBAL

1. OBJETO

El Ayuntamiento de Eibar convoca licitación pública para la adjudicación en régimen de autorización demanial del uso y disfrute de 5 plazas de banco corrido para la venta de productos frescos y de temporada en el Mercado de Errebal.

Las características de los puestos son las que se establecen en el artículo 6.5 del REGLAMENTO INTERNO DEL MERCADO MUNICIPAL DE ERREBAL

2. PERFIL DE CONTRATANTE

Conforme al artículo 63 de la LCSP 2017 y con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual de este Ayuntamiento de Eibar, se facilita a través del Perfil de Contratante del mismo toda la información relativa a su actividad contractual.

El acceso público al perfil del contratante del Ayuntamiento de Eibar se efectuará a través de la página web siguiente: www.eibar.eus

3. TASA A ABONAR

Los/as adjudicatarios/as de los puestos deberán abonar la tasa trimestral que corresponda, según la ordenanza en vigor.

Para el año 2022, esta tasa es de 45 € al trimestre por puesto.

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

4. BAIMENAREN IRAUPENA

Baimenaren iraupena 2023ko apirilaren 1era artekoa izango da eta, gehienez ere, hiru luzapen egin ahalko dira urtebeteko iraupenekoak.

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

5.1. AURRETIAZKO BALDINTZAK

Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten agirietan eta dokumentazioetan ezarritakorekin bat etorri behar dute, eta proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresariak baldintza-agiri honetako baldintza guztien edukia oso-osorik onartzea, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Ezingo zaio postu bat baino gehiago adjudikatu lizitatzaile berberari.

5.2 ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA

Proposamenak aurkezteko lekuak:

a) Elektronikoki, udal webgunetik: www.eibar.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

b) PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan. Udaletxean bertan dago bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).

Hauxe da Pegorako ordutegia: astelehenetik asteazkenera, 08:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; ostegunetik ostiralera 8:30etik 14:30era.

Uztailaren 1etik irailaren 30era, ordutegia 8:30etik 13:30era da.

4. DURACIÓN DE LA AUTORIZACIÓN

La autorización tendrá una duración hasta el 1 de abril de 2023, pudiendo prorrogarse hasta un máximo de tres prórrogas de un año de duración.

5. PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS

5.1 CONDICIONES PREVIAS

Las proposiciones de los/as interesados/as deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna.

No se podrá adjudicar más de un puesto a el/la mismo/a licitador/a.

5.2 LUGAR DE PRESENTACIÓN DE LAS OFERTAS

Lugares de presentación de proposiciones:

a) Electrónicamente, a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de IZENPE, etc.).

b) En PEGORA, Oficina de Servicio a la Ciudadanía, sita en la Casa Consistorial (Untzaga plaza nº 1, planta baja).

El horario de atención de Pegora es: de lunes a miércoles de 8:30 a 14:00 y de 15:00 a 19:00, los jueves y viernes de 8:30 a 14:30.

Entre el 1 de julio y el 30 de septiembre el horario es de 8:30 a 13:30.

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke PEGORAn. Hitzordua nola eskatu:

- Udal webgunearen bitartez: https://hitzorduak.eibar.eus/pegora/eu
- Telefonoz: 940 70 84 00 / 010.

5.3 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaintzak lizitazio-iragarkian (kontratatzailearen profilean argitaratuko da) ezarritako epearen barruan aurkeztuko dira.

5.4 PROPOSAMENEN EDUKIA

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:

a) Pertsona fisikoak: Nortasun-agiri Nazionala edo baliokidea.

b) Pertsona juridikoak: eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza —zeinetan jarduera erregulatzen duten arauak jasoko dituzten—, behar bezala inskribatuta, dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

2. Legezko ordezkapenaren kasuan, ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: proposamenak ez badu lizitatzaileen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahaldunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopiarekin batera. Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.

Para evitar posibles esperas, se puede solicitar cita en PEGORA. Cómo solicitar cita previa:

- A través de la página web municipal: https://hitzorduak.eibar.eus/pegora/es
- Por teléfono: 943 70 84 00 / 010.

5.3 PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPOSICIONES

Las proposiciones se presentarán dentro del plazo fijado en el anuncio de la licitación que se publicará en el perfil del contratante.

5.4 CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES

Documentación a presentar:

1. Documentos acreditativos de la personalidad jurídica:

a) En cuanto a personas físicas, documento nacional de identidad o equivalente.

b) En cuanto a personas jurídicas, escritura o documento de constitución, los estatutos o el acto fundacional, en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

2. En caso de representación legal, documentos acreditativos de la representación: Cuando la proposición no aparezca firmada por los/las licitadores/as deberá incluirse el poder otorgado a favor de quien o quienes suscriban la proposición junto con la fotocopia del Documento Nacional de Identidad del o los apoderados. No será necesario presentar esta documentación en caso de que la representación esté registrada en el censo de la representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

3. Zerga-betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa.

4. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda ez badago, alta emateko konpromisoa, adjudikaziodun irtenez gero.

5. Eskatzailearen izenean dagoen nekazaritzako ustiategiaren txartela.

Interesdunen artean partekatu beharreko postu bat eskatu ahal izango da. Horretarako, postua partekatu nahi dutenek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Kontratuaren esleipendun izanez gero, ondasun-erkidegoa eratzeko konpromisoa hartzen duen dokumentua, postua partekatzeko interesa duen bakoitzak bete eta sinatua. Eredua PEGORAn eta udalaren webgunean dago eskuragarri (www.eibar.eus).

- Aurreko 1-5 puntuetan deskribatutako dokumentazioa, postua partekatzeko interesa duten guztiena.

Kasu horretan, eskaera bateratu bakarra egin ahal izango dute.

SPKLren 71.2d), 140.1a) eta 150.2 artikuluen arabera, enpresa lizitatzaileek egunean izan behar dituzte indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak.

Prozedura hau ebazteko betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko, Eibarko Udalak honako informazio hau

3. Certificación acreditativa emitida por la Hacienda competente de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias.

4. Documentación acreditativa de estar dado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas.
En el caso de no encontrase de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas, compromiso de darse de alta en el caso de resultar adjudicatario.

5. Tarjeta de explotación agraria a nombre de el/la solicitante.

Se podrá solicitar un puesto a compartir entre varios/as interesados/as. Para ello, las personas interesadas en compartir el puesto deberán presentar:

- Documento mediante el que se comprometan a constituirse en Comunidad de Bienes en el caso de resultar adjudicatarios/as del contrato, cumplimentado y firmado por cada uno de los/as interesados/as en compartir puesto. Modelo disponible en PEGORA y en la página web municipal (www.eibar.eus).

- La documentación descrita en los puntos 1 a 5 anteriores de cada uno de los/as interesados/as en compartir puesto.

En este caso, solamente podrán realizar una solicitud conjunta.

Los artículos 71.2d), 140.1a) y 150.2 de la LCSP exigen a los/as licitadores/as hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y/o de Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

A fin de acreditar el cumplimiento de esas obligaciones para la resolución de este procedimiento, el Ayuntamiento de Eibar

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

kontsultatuko die, bitarteko telematikoen bidez, administrazio publiko eskudunei:

- Udalarekiko ordainketan egunean egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea.

Hori guztia bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.d) artikuluarekin eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) artikuluarekin.

consultará por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes la siguiente información:

- Estar al corriente del pago con el Ayuntamiento.
- Estar al corriente de pago de obligaciones con la Seguridad Social.

Todo ello de acuerdo con el artículo 53.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; así como con el artículo 6.1.c) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

6. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

6.1 Kontratazio Mahaia

Honela osatuko da:

Ana Tellería (Ogasun Batzorde Aholkulariko burua).
- *Presidentearen ordezko: Alberto Albistegui (Lehen alkateordea).*

Bokalak:

Iker Rodriguez (Zerbitzu Sailaren arduraduna).

Udal kontu-hartzailea.

Udal idazkaria.

Idazkaria:

Enrique Errasti (Kontratazioak eta Dirulaguntzak Unitatearen zuzendaria).

Kontratazio Mahaiak kalifikatuko ditu interesdunek denboraz eta formaz aurkeztutako agiriak eta 10 eguneko epea

6. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

6.1 Mesa de contratación.

Su composición será la siguiente:

Ana Tellería (Presidenta de la Comisión Asesora de Hacienda).
- *Suplente de la Presidenta: Alberto Albístegui (Primer Teniente de Alcalde).*

Vocales:

Iker Rodriguez (Responsable del Área de Servicios Municipales).

El Interventor Municipal.

El Secretario Municipal.

Secretario:

Enrique Errasti (Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones).

La Mesa de contratación procederá a calificar la documentación presentada en tiempo y forma por los/las interesados/as, concediéndose un plazo de 10 días para

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

emango du akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko.

Kalifikazio horren emaitzarekin akta egingo da onartuen eta baztertuen zerrenda adieraziz. Akta Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da.

6.2. Zozketa.

Postuaren baimena onartutako eskatzaileen artean zozketa eginez adjudikatuko da.

5 eskatzaile edo gutxiago badaude, ez da zozketarik egingo, eta postuak zuzenean esleituko zaizkie pleguko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei.

Kontratazio Mahaiak Kontratatzailearen profilean argitaratuko du zozketaren emaitza.

7. BAIMENAREN ADJUDIKAZIOA

Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusita, Alkateak herri-jabariko baimena adjudikatuko du, eta pertsona edo erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie; baimena kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Herri-jabariko baimenaren esleipena jakinarazi ondoren, adjudikaziodunek, jakinarazpena jaso eta gehienez ere 15 eguneko epean, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Egindako jarduera ekonomikoaren arriskuak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru baten harpidetza egiaztatzen duen dokumentazioa.

subsanar los defectos o completar la documentación.

Del resultado de la calificación se levantará acta con la indicación de los/as admitidos/as y excluidos/as. El acta se publicará en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento.

6.2 Desarrollo del sorteo.

La forma de adjudicación de la autorización será mediante sorteo entre los/as solicitantes admitidos/as.

En el caso de que en número de solicitantes sea igual o inferior a 5 no se celebrará el sorteo, adjudicándose los puestos directamente a los/as solicitantes que cumplan los requisitos del pliego.

La Mesa de Contratación publicará en el perfil del Contratante el resultado del sorteo.

7. ADJUDICACIÓN DE LA AUTORIZACIÓN

Vista la propuesta de la Mesa de Contratación, el Alcalde procederá a la adjudicación de la autorización demanial, que se notificará a las personas o entidades solicitantes, debiendo ser publicada en el perfil del contratante en el plazo de 15 días.

Notificada la adjudicación de la autorización demanial, los/as adjudicatarios/as deberán presentar la siguiente documentación en el plazo máximo de 15 días desde la notificación:

- Documentación acreditativa de la suscripción de un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos de la actividad económica ejercida.

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

- Interesdun bat baino gehiagoren artean postu bera partekatzea eskatu bada:

  – Ondasun-erkidegoa eratzeko kontratua.

  – Ondasun-erkidegoaren IFZren kopia.

Dokumentazioa aurkezteko lekuak:

a) Elektronikoki, udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTU** prozeduraren bidez (https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/tramiteak-zerbitzuak/bestelakoak/dokumentazioa-aurkeztea). Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

b) **PEGORAn**, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan. Udaletxean bertan dago bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).

8. Baimenaren Araudia

Baimenaren araudiari dagokionez, EIBARKO ERREBALGO UDAL AZOKAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEan ezarritakoari eta ERREBALGO UDAL AZOKAREN BARNE ARAUDIAn ezarritakoari egingo zaie kasu; plegu honetan doaz erantsita.

9. ITZULKETA

Baimenaren epea amaitzean, Udalari itzuliko zaizkio baimenaren xede diren ondasunak.

10. UNITATE IZAPIDEGILEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera,

- En caso de haber solicitado compartir entre varios/as interesados/as un mismo puesto:

  – Contrato de constitución de la Comunidad de Bienes.

  – Copia del NIF de la Comunidad de Bienes.

Lugares de presentación de la documentación:

a) Electrónicamente, a través del procedimiento de **PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN** de la página web municipal, https://www.eibar.eus/es/tramites/tramites-servicios/otros/presentacion-de-documentacion. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de IZENPE, etc.).

b) **En PEGORA,** Oficina de Servicio a la Ciudadanía, sita en la Casa Consistorial (Untzaga plaza nº 1, planta baja).

8. Régimen de la autorización

En cuanto al régimen de la autorización se estará a lo establecido en la ORDENANZA REGULADORA DEL MERCADO MUNICIPAL ERREBAL DE EIBAR y el REGLAMENTO INTERNO DEL MERCADO MUNICIPAL DE ERREBAL, que se adjuntan a este pliego.

9. REVERSIÓN

Al término del plazo de la autorización, revertirán al Ayuntamiento los bienes objeto de la autorización.

10. UNIDAD TRAMITADORA

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 62.1 de la LCSP, el área

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

espedientearen izapidetzaz eta jarraipenaz arduratuko den arloa ZERBITZU ALORRA izango da.

11. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN TRATAMENDUA.

11.1 Konfidentzialtasuna

Enpresa adjudikaziodunak (datuen tratamenduaren arduradun gisa) eta bertako langileek, zintzotasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, eskura dituzten datu pertsonalak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datu horiek galdu, suntsitu edo ustekabean kaltetu izanaren aurkako babesa bermatuz. Horretarako, aukerako neurri teknikoak edo antolakuntzakoak aplikatuko dituzte, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).

Obligazio hori sekretu profesionalaren betebeharraren osagarria da, eta indarrean jarraituko du datuak tratatzeko arduradunarekin (Udala) kontratua amaitu arren.

11.2. Datuen tratamendua.

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie euren eskaintza egitean eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztean jasotzen diren datu pertsonalak Udal honek erabiliko dituela kontratua behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko.

encargada de la tramitación y seguimiento del expediente será el AREA DE SERVICIOS DEL AYUNTAMIENTO.

11.- CONFIDENCIALIDAD Y TRATAMIENTO DE DATOS

11.1 Confidencialidad

La empresa adjudicataria (como encargada del tratamiento de datos) y su personal en cumplimiento de los principios de integridad y confidencialidad deben tratar los datos personales a los que tengan acceso de forma que garanticen una seguridad adecuada incluida la protección contra el tratamiento no autorizado o ilícito y contra su pérdida, destrucción o daño accidental, mediante la aplicación de medidas técnicas u organizativas apropiadas de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos).

Esta obligación es complementaria de los deberes de secreto profesional y subsistirá aunque haya finalizado el contrato con el responsable del tratamiento de los datos (Ayuntamiento).

11.2 Tratamiento de Datos

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento general de protección de datos, los licitadores quedan informados de que los datos de carácter personales que, en su caso, sean recogidos a través de la presentación de su oferta y demás documentación necesaria para proceder a la contratación serán tratados por este Ayuntamiento con la finalidad de garantizar el adecuado mantenimiento,

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**

cumplimiento y control del desarrollo del contrato.

12. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Emakida-kontratu hau plegu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da.; eta, hemen aurreikusten ez direnetarako, ondokoak aplikatuko dira: azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamendua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuz onartutakoa; eta egon daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko legeriatik ondorioztatutako printzipioak eta haren garapenerako xedapenak. Horren guztiaren osagarritzat administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta besterik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honen inguruan sortzen diren arazoen berri izateko.

12 RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONTRATO

Este contrato de autorización se regirá por lo establecido en este Pliego, y para lo no previsto en él, será de aplicación la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas; el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio y la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014; supletoriamente se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

El orden jurisdiccional contencioso-administrativo será el competente para el conocimiento de las cuestiones que se susciten en relación con este contrato.

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **c5af995e619946f74964bed41967e74a37403833**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202200001395**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA	**14/06/2022 10:01:48**